

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### ARRATZUA-UBARRUNDIAKO UDALA

#### **Behin betiko onespena ematea Zurbaoko 3 poligonoko 251, 252 eta 254 lurzatieen borondatezko birpartzelazio proiektuari**

Alkatetzaren apirilaren 9ko 105/2021 Dekretuaren bidez, behin betiko onetsi da Zurbaon 3 poligonoko 251, 252 eta 254 lurzatieen borondatezko birpartzelazioa, Carlos Pérez Soto arkitektoak idatzia eta Javier de las Fuentes Abad Gasteizko notarioaren aurrean formalizatua.

Ebazpen honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke Alkatetzari, iragarki hau argitaratu eta hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, iragarki hau argitaratu eta bi hilabeteko epean.

Dura, 2021eko apirilaren 9a

*Alkatea*

*M<sup>a</sup> BLANCA ANTÉPARA URIBE*